

Feminismoari XX. mendean ezarritako ikusezintasun mediatikoaren azterlana: mugimendu sufragistaren eta Emakumearen Askapen Mugimenduaren borroka komunikatiboa*

(A study on the journalistic invisibility of the feminism
in the XX. century: the communicative struggle of the
suffragist and the Women's Liberation Movements)

Larrondo Ureta, Ainara¹; Orbegozo Terradillos, Julen²
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) Gizarte eta Komunikazio
Zientzien Fakultatea. Sarriena s/n. 48940 Leioa.
ainara.larrondo@ehu.eus¹; julen.orbegozo@ehu.eus²

Recep.: 12.04.2019

BIBLID [eISSN 1988-3935 (2019), 17; 111-133]

Acep.: 16.07.2019

Lan honek helburutzat du azaltzea nola eta zer zentzutan definitu, irudikatu eta ikusarazi duen kazetaritzak mugimendu feminista. Mugimenduaren une kritiko batean egiten da analisi hau; izan ere, «prentsa txarra» eta mugimenduaren praktika sozialei eta jokabideari (gehiegizkoaren ideologia) buruzko konnotazio negatiboak nagusi izan diren hamarkaden ondoren, mugimendua berpiztuta eta ikusgai dugu berriro hainbat faktoreri esker. Faktore horien artean nabarmenenetako bat sare sozial digitalak ikur dituen garapen teknologikoa da.

Gako-hitzak: Mugimendu feminista. Prentsa. Sufragismoa. EAM.

Este trabajo encierra un análisis que busca explicar de qué manera y en qué sentido el periodismo ha definido, representado y visibilizado el movimiento feminista. Este análisis tiene lugar en un momento crítico para el movimiento, en el que tras décadas de “mala prensa” y de significados marcados por connotaciones negativas relativas a sus prácticas sociales y su estilo de conducta (ideología de exceso), el movimiento se ve revitalizado y revisibilizado gracias a factores diversos, siendo uno de los más evidentes el de tipo tecnológico, simbolizado por las redes sociales digitales.

Palabras clave: Movimiento feminista. Prensa. Sufragismo. MLM.

L'objectif de cette étude est de montrer comment et dans quel sens le journalisme a défini, conçu et présenté le mouvement féministe. Cette analyse est réalisée à un moment crucial du mouvement ; en effet, après des décennies où le féminisme a été dénigré et où les connotations négatives à l'encontre de ses pratiques sociales et de ses comportements (l'idéologie de l'excès) ont prévalu, nous constatons qu'il se raffermi et redevient visible grâce à divers facteurs. Parmi ceux-ci, nous devons souligner le développement technologique des réseaux sociaux numériques.

Mots-clés: Mouvement féministe. Presse. Suffragisme. EAM

1. SARRERA

Feminismoak ongi irudikatzen ditu gizarte taldeek, erakundeek eta ideologiek agertoki mediatikoan gizarte errealitatea eraikitzeke dituzten borroak. Agertoki horretan, feministak nor diren argitzeko eztabaidek hainbat esanahi eta identitate jakin bat eman diote pixkanaka emakumeen mugimenduari. Eta garrantzitsua da ulertzea hedabideek nola egin duten gizarte eraikuntza hori; izan ere, hedabideen tratamenduak pertsonen jarrera eta iritzietan eragiten du; are gehiago, haien ezagutza edo esperientzia lehen eskukoa ez denean. Batez ere, estaldura horiek aurkakoak direnean, horrelakoetan gizartearen inplikazioak behera egiten baitu eta feminismoaren etiketaren aukako jarrerak areagotzen baitira.

Esan genezake hedabideek, askotariko bitarteko diskurtsiboak erabilia, mugimendu feministaren «prentsa txarrari» forma ematen lagundu dutela, gizarte imajinarioan haren aurkako irudiak sortzen. «Imajinarioa» gizarte batek edo gizarte talde batek partekatutako irudien multzo gisa ulertzen dugu, non errepresentazio, ebidentzia eta aurreuposamendu inplizituak biltzen diren eta horien bidez ulertzen edo irudikatzen den mundua, gizarte harremanak, gizarte identitateak, helburu eta gurari kolektiboak, etab. (Imbert, 1990).

Jakina, elkarrekikotasuna dago prentsaren diskurtsoaren eta errealitatearen artean, baina agerikoa da, halaber, ikuspegi objektibista-positibista hori osatuta geratzen dela agenda-seetingaren (McCombs eta Bell, 1997: 93-113) eta framingaren teoriaren ikuspegi analitikoarekin. Horien arabera, hedabideek gizarte agenda finkatzen eta iritzi publikoa baldintzatzen dute, tazituki adierazten baitute zertan pentsatu behar den eta nola pentsatu behar den. Horrela, errealitatearen parte bat irudikatzen dute, haiek aukeratutako hura, eta interes hori «albiste-balio» jakin batzuen arabera justifikatzen dute. Kazetaritzako interpretazio prozesu horrek garrantzi berezia hartzen du, feminismoak bezala, gizarte, politika eta kultura eraldaketak lortu nahi dituzten gutxiengoen eta protestako gizarte mugimenduen estaldura, presentzia eta trataera mediatikoan.

Mugimendu feministak eta hedabideek izandako harremanari buruzko azterlanak urriak dira, eta gehienak eremu anglosaxoian egindakoak (Ann eta Salo, 2002: 211-228; Bradley, 2003; Cancian eta Ross, 1981: 9-26; Erdman, 1995: 642-645; Johnson, 1995: 743-775; Morris, 1973a: 37-42; Rhode, 1995: 685-710). Feminismoaren gaineko monografia batzuek gaiari buruz gutxi-asko landutako erreferentziak eskaintzen dituzte (Carden, 1974; Davis, 1991; Escario, Alberdi eta López-Accotto, 1996; Freeman, 1995; Marx eta Hess, 1995; Morris, 1973a eta 1973b: 526-543; Nash, 2004; Larumbe, 2004).

Literatura akademiko espezifiko horretan jasotzen denaren arabera, prentsak hasieran ez zion jaramonik egin mugimenduari, ez lehen boladan (sufragismoa), ez bigarrenean (askapen mugimendua); alabaina, interes falta hura gorabehera, mugimenduak hedapena lortu zuen ahoz ahokoari,

harreman pertsonalei eta hedabide alternatiboei esker. Indiferentzia hori azaltzeko, *status quo*a eta gizarte arauak indartzeko masa hedabideek gizartean duten paperari erreparatu zaio. Hipotesi horren arabera, prentsak goraka ari zen mugimendu horren gizarte kontrol mekanismo gisa funtzionatu zuen, mugimenduaren helburuak mehatxu bat baitziren ezarritako balioentzat. Hala, hasierako fase haietan hedabideek feminismoan izandako eragina neurtzeko, esaten ez zenari gehiago erreparatu behar diogu esaten zenari baino. Metodo hark mugimenduari eustea bilatu zuen, publiko orokorrari informazioa ezkatutuz, ezjakintasunak gizarte aldaketa edo gatazka prebenitu edo eten dezakeela sinetsita.

Bestalde, mugimenduak aldi jakin batzuetan izandako hedadura azkarra zuzenean lotu izan da hedabideek eta, bereziki, prentsak eman dioten proiektzio publikoarekin. Bat-bateko interes hori azaltzeko, baliagarria da Turner eta Killian (1957: 328-329) egileek landutako paradigma. Horren arabera, gizarte mugimenduen definizio publikoak haien errepresiorako erabilitako bitarteko nagusi gisa funtzionatzen du; hortaz, horrela ulertzen dugu feminismoak ez zuela definizio publiko bat eduki, harik eta haren bultzada eta izaera guztiz sediziosoa zela agerian geratzen hasi zen arte. Oraindik ere bere helburuei eusten ziela egiaztatu zenean, axaleko estaldura bat eskaini zitzaion, haren asmoak suntsitzeko xedearekin. Orduan helburu orokor berberak zituzten aurkako mugimenduak sortu ziren, eta feminismoa «arrotz», «berezi» edo «irrigarri» gisa hasi zen definitzen, eta ezaugarri horiek guztiek hutsaldu egin zuten mugimendua, haren inpaktua gutxitzeko asmoz. Beste kasu batzuetan, ezikusiarrena egiten jarraitu zen.

Defendatu daiteke ere kazetaritza jarduerak nolabaiteko eragin biderkatzailea izan duela mugimendu honetan. Zentzu horretan, begien bistakoa dirudi prentsak lagundu duela feminismoa kaleko ekintza mugimendu gisa eratzten; mugimendu bat, ikusia izateko eta publiko nahiz hedabideen arreta bere kausara erakartzeko ahalegintzen dena. Komunikazio estrategia horrek, ordea, gutxitan izan du espero zen emaitza, hedabideen erantzunak haren ikusezintasuna bultzatu baitu, gehienbat. Hala, mugimenduaren ekintza protesten difusioa eginez edo, zuzenean, haren arrakasta ezkatutuz prentsak ikuspegi mediatikoak finkatzeko eta iritzi publikoa moldeatzeko duen gaitasunak eragin negatiboa izan du feminismoaren pertzepzio kulturaletan eta definizio publikoan.

Historikoki, egunkariak feministak albisteen subjektu gisa erakusteko erabili izan dituzten irudiek oso lotura txikia edo batere loturarik ez dute izan «benetako feministekin». Hori iradokitzen digu mugimenduak kontrainformazio plataforma propioak edukitzeko izan duen beharrak, nahiz eta argitalpen feministak oso aldi bakanetan lehiatu ahal izan diren orotariko egunkarien argitaraldiarekin eta zirkulazioarekin.

Horrelako lehen argitalpenak lehen feminismoaren eskutik iritsi ziren (*The Lily, Suffragette, The Revolution, La Voix des Femmes, Feminal, Pensamiento Femenino, etc.*). Adibide aitzindari horiek alde batera utzita, prentsa feminista

joan den mendearen 70eko hamarkadaren erdialdean hasi zen benetan finkatzen

Espainian, *Vindicación Feminista* nabarmendu zen, Bartzelonako Kolektibo Feministak 1976an sortutako argitalpen bat, 35.000 aleko argitaraldia izan zuena. Lehen zenbakian adierazi zuen «informazio hedabideen hutsune bat betetzeko» helburua zuela eta emakumeei eragiten zieten gaurkotasun politiko eta kulturalako gaiak aztertuko zituela. Garai berean, beste argitalpen moderatuago batzuk sortu ziren, hala nola *Opción* edo *Mujeres Demócratas*, eta handik urte batzuetara, 80ko urteetan, beste batzuk, hala nola *Tribuna Feminista*, *La Mujer Feminista*, *Desde el Feminismo* edo *Mujeres Libertarias* (Larrondo, 2017).

Mezu gurutzatuen laino horren erdian, diskurtso feministaren eraginkortasuna, gizarte aldaketarako tresna gisa, komunikazio nagusiaren edukia eta masa komunikabideek emandako oihartzunen menpe egon da.

2. METODOLOGIA

Sarreran aipatutako alderdiei buruzko gogoeta egiteko asmoz, zehazki, artikulu honen analisiak arreta jartzen du XX. mendean emakumeen bi mugimendu nagusiek jaso duten trataeran: Sufragismoa eta Women's Liberation Movement (WLM) edo Emakumearen Askapen Mugimendua (EAM). Lehen etapa talde sufragistak Estatu Batuetan ugaltu ziren garaia lotuta dago. Garai hartan, talde horien jardura, zeina I. Mundu Gerrak bakarrik eten baitzuen, areagotzen joan zen, eta jarraipen informatibo gero eta garrantzitsuagoa lortzen joan zen. Lehenengo arrakasta horren ondoren, estaldurak behera egin zuen hainbat hamarkadatan, eta 70eko hamarkadan gora egin zuen berriro «bigarren belaunaldiko feminismoa» –Women's Liberation Movement edo Emakumearen Askapen Mugimendua (EAM) gisa ere ezaguna– indartzearekin batera.

Izan ere, gure hipotesiaren abiapuntua honako hau da: feminismoa jadanik forma hartuta eta indartuta ezagutzera eman zen garai historiko haietan argitaratutako artikuluek, binetek eta bestelakoek finkatzen lagundu zuten mugimenduari eta haren ordezkari buruzko erretratuak, gerora iraun eta eragina izan zutenak. Horren harira, egunkariek mugimendua ikusgai jarri bazuten ere –are gehiago, haren informazio estaldura emakumeen mugimendua baten sorreraren lehen zantzutzat har daiteke–, prentsak haren ikusezintasuna bultzatzen lagundu zuen, feminismoa termino kontrajarrietan definitzen eta erretratatzeko zuten irudi partzialak oinarri hartuta.

Hipotesi hori abiapuntutzat hartuta, komunikazioaren eginkizuna aztertzen da mezu feministaren difusioan eta kontzientziazio tresna gisa hark duen balioan. Horretarako, testuak informazio subjektu gisa onartzen ditu feministak eta feminismoa, eta azaltzen du zer gai eta aldarrikapen nabarmendu diren gehien, prentsak lehentasuna eman dielako. Era berean,

kazetaritza diskurtso horiek bultzatu dituzten aldeko eta aurkako definizio eta ikuspegi nagusiez ohartarazten digu (Larrondo, 2010).

Analisia egiteko, prentsa testuen eta bineten aukeraketa bat egin dugu, non prentsa antifeministak erabilitako ukapen bitartekoak agerian geratzen baitira. Lanean horrelako kasu esanguratsu batzuk deskribatzen dira. Materialak hogeiei web gordailutatik jaso dira, eta horiek izan dira azterlanaren iturri nagusiak, aipatutako material bibliografikoekin batera. Azterlanaren helburuak aintzat hartuta, edukiaren analisi deskriptiboa egitea erabaki zen komunikatzaileen asmoak identifikatzeko, arreta guneak erakusteko eta komunikazio jakin baten ondorioak baloratzeko (Krippendorff, 2004: 45-46). Modu espezifikoan, gai nagusiari, protagonistei eta, prentsaren kasuan, aurredeterminazio eta ikuspegi mailari lotutako (informazioa eragin duen gertakari mota, aurreikusia edo ezustekoa: iskanbilak, manifestazioak, istripuak, etab.) adierazleen arabera aztertu ziren materialak.

Autoritatearen argumentuaren aurrean, ironiak arbuizatzeko are irrimoagoa lortzen du, eta, termino errazetan edo oso ulergarrietan planteatzen denez, gizarte inpaktu handiagoa du. Horrela, feministak prestigiorik gabeko estereotipo batez ezagutzera ematea lortzen da, eta haien eta gizartearen gainerako multzoaren arteko urruntze bat gertatzen da, zeinak haien kausa, idealizatzen urrun, arazo bat bezala ikusten baitu.

Hona iritsita, komeni da gogoratzea badirela, komunikazioaren ikuspuntutik, sufragismoaren eta EAMren arteko desberdintasun interesgarri batzuk. Horiek azaltzeko, mugimendu baten eta bestearen ezaugarriak erreparatu behar zaie, baita sortu zuten informazio motei eta hedabideen inguruko estrategiei ere. Hala, sufragismoa emakumeen boto eskubidea lortzen saiatu zen, eta ekimenetan zentratutako informazioak sortu zituen; EAMak helburu iraunkorak bilatu zituen: emakumeen kontzientziazioa eta aldaketak sistema politikoan, sozialean eta kulturean.

Zentzu horretan, zailagoa izan zen haren estaldura egitea, prentsari feministen diskurtsoa albiste gai urria zela iruditu zitzaielako. Bi mugimenduetan, feminista erradikalek kazetariak etsai modura ikusi zituzten, eskaintzen zitzaizkien estaldurari eskasa, konpromiso gutxikoa eta antifeminista irizten ziotelako. Ulertzen zuten, halaber, prentsaren estaldura interesatua zela eta soilik gertakizun mediatikoa bilatzen zuela (manifestazioak eta protestak, ekintza subertsioak, liskarrak poliziekin, itxialdiak, etab.). Ostera, sufragismoaren prentsarekiko jarrera ez zen izan EAMarena bezain bortitza. Askapen talde batzuek soilik emakume kazetariak uzten zieten haiei buruzko albisteak ematen, eta beste batzuek, berriz, prentsa ororekin tratua izateari uko egin zioten.

Hori dela eta, feminismoaren eta hedabideen arteko harremana beti liskartsua izan bada ere, borroka hura are gordinagoa izan zen 70eko hamarkadan. Izan ere, lehen belaunaldiko feminismoa ez zen hain urrun joan, haren eskaerak gizartean onartutako emakume ereduari lotuta egon ziren neurrian. Aitzitik, telebistan eta publizitatean etxeko andre eta objektu erotiko

gisa finkatzen ari zen emakume ereduaren aurkako irudia proiektatzen saiatu zen EAM, gizarte mediatiko batean irudiak duen garrantziaz jabetuta.

Errepasoa egiten dugun bitartean, botereak feminismoa bezalako mugimenduen eragina murrizteko gehien erabiltzen dituen bi bitarteko ikusiko ditugu: ukapena eta psikologizazioa (Larunbe, 2002: 331 eta hur.). Ukapena gutxiengoak defendatutako postulatuei inolako egiantzekotasunik ez ematean datza, ideia zuzen bakarrak gehiengoarenak direla berretsiz. Horretarako, argudio mota hauek erabiltzen dira: «erabilitako metodoa ez da egokia», «sen onaren aurkakoa da», «absurdoa da», «utopikoa da», etab. Bestalde, psikologizazioan gutxiengo horren aurkako iritziak ematen dira, gizarteak hari buruz duen pertzepzioaz baliatuta, eta horrela balorazio negatiboak egiten dira. Hori lortzeko, gutxiengoaren planteamenduak defendatzen dituenaren irudia barregarri uzten da, eta gutxiengoa osatzen duten pertsonak –ez haien ideiak– gaitzesten dira. Modu horretan, mezua bera gaitzesten da, eta eragina izateko aukerarik gabe uzten zaio.

3. ANALISIA

3.1. Lehen errepresentazio antisufragistak

3.1.1. Sufragismo estatubatuarra

Feminismoaren lehen estaldura mediatikoa sufragismoaren sorreran izan zen. «Lehen olatu» hartan, emakumeak lehenengoz elkartu ziren taldean, kausa propio bat defendatzeko, eta egin ere handitasunez egin zuten, publizitate kanpainak, manifestazio erraldoiak eta kaleko beste ekintza batzuk antolatuta; hala, asaldura handia sorrarazi zuten herrikideen artean, emakumeak soilik etxeko eremu pribatuan ikusten ohituta baitzeuden. Hasiera batean, mugimendu horrek arreta mediatiko apala jaso zuen, baina horrek ez zuen haren garapena eragotzi. Haatik, pentsatu izan da prentsaren axolagabekeria hark on egin ziola sufragismoari bere sorreran.

Antisufragismoa finkatu eta indartzen hasi zenean, egunkariak eztabaida maizago hasi ziren plazaratzen, eta sufragistek protagonismoa hartu zuten. Salbuespenak salbuespen, egunkariek jarrera oldarkorra izan zuten, eta bultzatu zituzten errepresentazioek kontrako efektua izan zuten.

Sufragismoaren estaldura mediatikoa Seneca Fallseko Adierazpenari buruzko informazioekin hasi zen; dokumentu hura New York estatuaren kapera txiki batean idatzi zen, 1848an, Emakumeen Eskubideen Konbentzioaren harira. Adierazpen horrek eskubide askoren gabezia hartu zuen kontuan (lanekoak, ezkontzakoak, erlijiosoak, jabetzazkoak, etab.), baina guztien artean, boto eskaera gehiegizkotzat hartu zen, eta horren eraginez, garaiko prentsaren gai feminista kutuna izatera iritsi zen. *New York Herald*ek adierazpenaren testu osoa argitaratu zuen, eta dibertigarri (*amusing*) gisa

kalifikatu zuen. Filadelfiako *Public Ledger* eta *Daily Transcript* egunkariak profetizatu zuten emakume bakar batek ere ez zuela botoa eman nahiko, emakume bat deus ez den bitartean emazte bat guztia dela iritzita.

Ekimen hura seriotasunez landu zuen egunkari handi bakarra *New York Tribune* izan zen. Horace Greeley's editoreak berdintasun politikoaren eskaera ezegokitzat jo bazuen ere, onartu zuen, oso ausarta eta okerra izan arren, eskaera eskubide natural baten aitortza zela eta, horrela izanik, legitimitatea eman behar zitzaiola. *The North Star*¹ bulegoak argitaratutako txostenaren tonua positiboagoa zen. Emakumeen eskubideen aldeko Seneca Fallseko Konbentzioari buruzko albisteak berehala hedatu ziren herrialde² osora. Haren inpaktua Amerikako kontinentetik kanpo ere hedatu zen.

Irakurleei mezu distorsionatua eta mugimenduaren irudi desitxuratua iritsi zitzaien, garaiko bineta eta marrazkietan ikus daitekeen moduan. Errepresentazio koloretsu horiek, itxuraz dibertigarriak eta kaltegabeak, esfera pribatuaren eta publikoaren arteko bereizketa indartzen dute, eta sufragismoa gizonen lekua kendu nahi dieten emakumeen gutxiengo mugimendu gisa definitzen dute; hau da, rola inbertitzeko asmoak dituen talde gisa.

Kartelak, binetak eta postalak bezalako propaganda elementuen erabilera oso bortitza izan zen, eta mugimendua irrigarri uzteko erabili zen feministak hainbat topikorekin lotuta, hala nola maskulinizazioa edo feminitatearen galera, ezkongabetasuna, fanatismoa, etab. Horien bidez, maila eta klase guztietako emakumeak eta gizonak izutzea lortu zuten. Izan ere, mugimenduan mobilizatutako milaka emakumeen artetik gehienak ezkontuta egon eta etxeko andreak izan arren, sufragistak mari-gizon, ezkongabe itsusi eta mendekua nahi zuten tirano gisa identifikatu zituzten (1. irudia).



1. Irudia. Irudien muntaia autoreek eginda.

Irudien iturria: Historyoffeminism.com

1. <<http://www.nps.gov/archive/wori/report1.htm>> (Kontsulta, 2018ko uzt.).

2. Wyoming Estatutuan emakumeen boto eskubidea 1869an lortu bazen ere, ez zen herrialde osora zabaldu 1920ra arte (Seneca Fallseko Adierazpenetik hirurogei eta hamabi urtera).

Gauzak horrela, «iradokizun batzuen arabera, ezkongabeak sufragista bihurtzen ziren beren sexu instintuak asegabe zituztelako» (Nash, 2004: 116). Edonola ere, senarra eta seme-alabak edukita ere ez ziren laidoetatik libre. Kasu horretan, amaren eta emaztearen papera arma gisa erabilia, sufragistak sasi-emakumetzat hartzen zituzten, etxean beren «eginkizun naturalak» betetzen ez zituztenak eta ez zegokien leku baten bila joateko beren lekua uzten zutenak.

Emakumeak moralki gizonen gainetik egotearen argudioa, bitxia bada ere, mugimendu antisufragistak gehien erabilitako argudioetako bat izan zen. Horren arabera, emakumeak bere botoaren bidez sistema politikoa parte hartzeko aukera izateak *etxeko aingeruaren* irudia arriskuan jartzen du, eta, horrekin batera, gizonaren eta seme-alaben zaindari gisa emakumeek gizarteari eskaintzen zioten zerbitzua. National League for Opposing Woman Suffrage (NLOWS) elkarte britainiarren poster ospetsuek ongi ilustratzen zuten argudio hori.

Irudian, senarrak, etxea iristean, seme-alabak babesgabe eta negarrez aurkitzen ditu, eta horman kartel batek honela dio: «Botoa emakumeentzat. Ordubete barru itzuliko naiz». Posterrak rol maskulinoa indartzen du, eta gizona ohartarazi nahi du emakumeak botoa lortzen badu lanegun gogor batetik itzultzean aurki dezakeenaren inguruan.

Arrazonamendu hori eta antzeko beste batzuk ezin argiago ilustratuta ageri dira *Life*³ aldizkariak 1906ko azaroaren 15ean argitaratutako editorialean. Testu horrek adierazten du arrazoi ugari daudela pentsatzeko emakume askok eskubide hori erabil dezaketela (gizonek baino prestakuntza hobearekin dute –gehiago irakurtzen dute eta eskolaratze denbora gehiago pasa dute–ron gutxiago edaten eta nekez erretzen dute, otoitz egiten dute, eta maizago joaten dira mezetara, eta onak izaten ahalegintzen dira); alabaina, bozkatzeko kualifikazio txikiagoa dutela defendatzen du:

«Emakumearen sufragioaren eragozpen nagusia da boto emaile ez-kualifikatuen kopuru izugarri handia gehituko litzaiokeela gaur egun dagoeneko botoa ematen duten boto emaile mota horri»

Idea honen aurka jasotako beste argudioetako bat da emakumeen gehiengo handi batek ez duela bozkatu nahi:

«Botoa eman nahi zuten emakumeen ekintza antolatutako bozkatu nahi ez zuten emakumeen gehiengoari sufragioa inposatzeko aukeraren beldurra hedatzen hasi zenean, antisufragistak antolatu ziren hori prebenitzeko»

Idea eta errepresentazio ironiko horiek feministak iragarri uzteko eta haien eskaerei legitimotasuna kentzeko erabili ziren, gizarte justiziaren alde borrokatzen ziren emakume gisa feministek eman nahi zuten irudiaren aurka.

3. <http://womenshistory.about.com/library/misc/bl_life1906.htm> (Kontsulta 2018ko eka.).

Mezuan aldarrikatzen zuten gizonen eta emakumeen arteko eskubideen parekidetasuna ona izango litzatekeela gizarte hobea erakitzeko, orainean eta etorkizunean; hots, kanpaina antisufragistek eta egunkari gehienek sinestarazi nahi zutenaren kontrakoa erabat. Ez dirudi oso zaila denik imajinatzea borroka feminista horrek zenbateko kostua izan zuen, kontuan hartzen badugu haren helburuak zirela pentsaerak eta legeak aldatzea, arreta erakartzea eta mezua helaraztea, eta, gero, iritzi publikoa haien aurka jartzen zuen irudi desitxuratu eta negatibo hura iraultzea. Are gehiago, galde dezakegu ea eraikuntza horiek ez ote diren gaur egun herentzia astun bat feminismoarentzat, mende bat baino gehiago igaro denean, mugimendu honen aurrerapenak, konkistak eta gizartearekiko jarrera erabat irekia gorabehera.

3.1.2. Sufragismo britainiarra

Estatubatuarraren atzetik, feminismo britainiarra agertu zen modu antolatuan. Sufragismo horrek bi adar eduki zituen, bata moderatua eta bestea erradikala, zeina Women's Social and Political Union (WSPU) taldeko sortzaile Emmeline Pankhurst-ek ordezkatu baitzuen. Adar hori hainbat sufragistaren artean areagotzen ari zen etsipenaren ondorioz sortu zen, aldaketen erritmo geldoa ikusita haien jarrerak erradikalizatzea erabaki baitzuten. *Suffragette* izenez egin ziren ezagun; termino hori Londresko egunkari batek erabili zuen lehenengoz haiek irrigarri uzteko eta sufragista moderatuen aurrean ezerezean uzteko helburuarekin. *Suffragette*ak bereziki borrokazaleak izan ziren, eta ekintza zuzenera jo zuten, borroka metodo gisa eta prentsaren publizitatea lortzeko formula gisa. Horretarako, manifestazio publikoak, kateatzeak, Gobernuko kideen aurkako hitzezko oldarrak eta sabotaje txikiak egin zituzten.

Kale erdian atxilotetak eragiten zituzten gertaera iskanbilatsu haiek egunkari britainiarren arreta bereganatu zuten. Era berean, orrialdeak bete ziren *suffragette*ek propietateei egindako erasoen deskribapenez. Ageri den adibidea *Birmingham Weekly Mercury*koa da (2. irudia), eta ideia hori ilustratzen du. Albiste baten goiburuak sufragistak Parlamentu britainiarrean sartzea «inbasioztat» kalifikatu zuen, azalduz nola poliziaren presentzia beharrezkoa izan zen sufragisten oldeari eusteko eta nola azkenean atxilotu zituzten. Albistearekin batera, ekintzaren buru izandakoen atxilotetaren irudia ageri zen.



2. Irudia. *Birmingham Weekly Mercury*
1906ko urriaren 17a

Horrelakoen aurka eta beldur zen iritzi publikoa elikatu zuten irudi mota asaldatzailer horiek, *suffragette*ek askotan salatu zuten moduan. Haien iritziz, prentsaren erantzunak ekintzen helburua hutsaltzen zuen, eta iritzi okerra lortzen zen, nahi zutenaren guztiz kontrakoa. Horrela, ekintza horiek iritzi publikoa beren aurka jarri zuten, eta Parlamentuan erreforma bat lortzeko erabilitako bitarteko bortitzei buruzko iruzkinek haien estereotipoak indartu zituzten.

Beren jabetzen suntsipenaren aurka protesta egin zuten enpresaburu batzuen bilkurari buruzko The Timesen artikulua batean iradokitzen zenez, militanteen ekintzek iritzi publikoaren aldaketa sakona eragin zuten, eta Gobernuak hori justifikazio gisa erabil zezakeen, emakumeen botoa ez sartzeko. Ildo horretan, testuak *suffragette*en legez kontrako ekintza bortitzen aurka zeuden sufragistak txalotzen zituen. Modu berean, behin baino gehiagotan *suffragette*en ekimenen aldekoa izandako Manchester Guardianek honela zioen eraso baten berri ematean:

«Nekez imajina daiteke nola pentsa dezakeen emakume zintzo batek kausa on bat bitarte horien bidez lor daitekeenik. Bi jarrerak adierazten dute *suffragette*en ekintzak, gaitzespena jaso bazuten ere, baliagarriak izan zirela emakumeen botoaren aldeko jarrerak behartzeko, baldin eta sufragisten jarrerak moderatzen baziren».

Sufragismo erradikal horrek *Daily Mirror* bezalako egunkari garrantzitsu batzuen babesa ere izan zuen, *suffragette*ek atxilotuak eta publikoki erdeinatuak izan ziren hainbat alditan. Egunkari horrek sufragisten aurkako jarrera bortitzak publikoki kondenatzeko hainbat azal egin zuen (3. Irudia). Esaterako, 1912ko irailean sufragistek David Lloyd George lehen ministroaren mitin bat eteteagatik jaso zuten erasoa gaitzetsi zen: «Jende olde batek *suffragette*ek kolpatu eta jipoitu ditu, Galesen». Albistearen gorputzak eraso horren gaitzespen esplizitua egiten du: «Haien militantzia metodoekin ados egon gaitezke ala ez, baina jendetza suminduaren jarrera bortitza ezin da inola ere justifikatu».



3. Irudia. *Daily Mirror*, 1912ko iraila eta 1914ko maiatza
Irudien muntaia autoreek eginda.

Prentsari oihartzun gehien izan zuen gertaeretakoa bat Emily Wilding Davison *suffragette*aren istripu tragikoa izan zen, Epsomgo hipodromoan egindako urteko derbyan. Protesta ekintza batean, erregearen zaldia

aurrean jarri zen, hura geratzeko asmoz, eta larriki zauritu zen. *Daily Mirror*ek honela eman zuen tragediaren berri: «Anmer zaldiak emakumearen bularraren kontra talka egin, eta hura konortetik gabe utzi zuen. Odola zerion sudurretik eta ahotik. Zaldiak buruzgain erori zen, eta Herbert Jones zaldizkoa konortetik gabe geratu zen, larriki zaurituta. Emakumea jaso, eta anbulantzian eraman zuten Epsomgo Ospitalera» (4. irudia). Egunkari batzuk urrunago joan ziren, eta ekintza hura eromen eta laido publikotzat kalifikatu zuten, lasterketa bikain hura horrela zapuztu izana deitoratuta.



4. Irudia. *Daily Express*
1913ko ekainaren 9a

Davison 1903ko ekainaren 8an hil zen, eta *The Times* egunkari kontserbadoreak albiste eman zuen, izenburu honekin: «Sufragistaren eskandalua, Epsomen. E.W. Davison hil da». «Emily Wilding Davison, Derbyaren lasterketan erregearen zaldia geldiarazi zuen sufragista, Epsomgo ospitalean hil zen atzo, arratsaldeko 4:50ean. Andereñoaren hainbat lagun ospitalera joan ziren larunbat arratsaldean, haren egoeraren berri izateko. Bi bisitarik WSPUren koloreak zabaldu zituzten haren ohearen inguruan. Davisonen ahizpak eta amaren lagun batek hainbat ordu igaro zituzten ospitalean, eta larunbat gauean Davison kapitaina ere, pazientearen anaia, bertara joan zen. Ostera, hil zenean, osasun langileak bakarrik zeuden bertan», *Daily Sketch* tabloideak lasterketan izandako istripuaren hainbat argazki argitaratu zituen –gauza oso bitxia garai hartan– eta, heriotzaren berri ematean, Davison emakumeengandik bizitza eman zuen lehen emakumea izan zela adierazi zuen (5. irudia).



5. Irudia. *Daily Sketch*
1913ko ekainaren 9a

Sufragista erradikalen *Suffragette* egunkariak ere Davisonen ekintza goraipatu zuen, eta martir gisa kalifikatu zuen haren omenezko azalean: «She died for women» (6. irudia).



6. Irudia. *Suffragette*
1913ko ekainaren 9a

Kartzelaratutako sufragistak jatera behartu zituztenean ere azal deigarri batzuk egin zituzten, baina hura ere ez zen nahikoa izan iritzi publikoa aldatzeko (7. irudia).



7. Irudia. *Illustrated London News*
1912ko apirilaren 17a

Espazio arrazoiak direla eta, ez gara luzatuko hedabideetako albiste-gietan, baina interesgarria irizten diogu *Punch*, or the *London Charivari* magazin ironikoak bete zuen papera gogoratzeari. Hedapen handiko XX. mende hasierako argitalpen hau *suffragetteei* bineten bidez egindako eskarnio eta satiragatik nabarmentzen da. Horietako batzuen bortizkeria eta krudeltasuna laidogarriak ere badira. Halakoa da, adibidez, marrazki bat, non sufragista baten eta senarrak jipoitutako emakume baten arteko elkarriketa agertzen den. Epigrafe honen hasieran aipatutako bineta antisufragisten ildoan, irudi horiek *suffragetteen* eta mugimenduaren inguruko hainbat topiko indartu zituzten:

- a) Kontrolatu eta bere funtzioa kendu nahi dioten emakumeak dira. Horretarako, etxe barruan rol maskulinoekin agertzen dira, eta alderantziz (adibidez, erditu berri duen gizon batek umea hartzen du, emakumea medikuarekin hizketan ari den bitartean). “Alderantzizko munduaren” topikoa da (8. eta 9. irudiak).
- b) Kausa sufragista kaltetzen duen gauza bakarra haren jarrera bortitza eta irrazionala da, ez dago oztopo gehiagorik. Bere izaera ‘irrazionalagatik’, emakumeak ez daude prestatuta bozkatzeko. Ideia hori ilustratzeko, *suffragette* baten irudia ageri da sufragista moderatu bat jipoitzeko keinua eginez (10. irudia).
- c) Ezkongabe izatea da desohore handiena (11. irudia).



8. Irudia. *Punch* magazine (1909)



9. Irudia. *Punch* magazine (1907)



10. Irudia. *Punch magazine* (1906)



11. Irudia. *Punch magazine* (1908)

3.2. Women´s Lib edo Emakumeen Askapen Mugimendua (EAM)

1920-1960 urteen bitartean, kontzientzia feminista berri bat sortu zen, emakumeek lanean, hezkuntzan eta familian izandako eraldaketen eraginez. II. Mundu Gerraren ondoren izandako aldaketa sozioekonomiko horiekin batera, balioak ere aldatu ziren, eta horrek guztiak sufragismoaren inguruan antolatzen hasitako berdintasunaren aldeko borroka berpiztea ekarri zuen, feminismoaren aro berri garrantzitsu bat abian jarri. Bigarren «olatu» hau 60ko hamarkadako erdialdean hasi zen Estatu Batuetan, eta *Women's Liberation Movement* edo Emakumeen Askapen Mugimendua gisa bataiatu zen. Errubrika orokor horren pean, talde ugari sartu ziren (tartean, National Organization of Women, NOW, Betty Friedanek sortutakoa), eta etxekoandre eta familiako ama gisa sexualki emandako paperetik emakumea askatzeko beharra sentitu zuten guztiek.

Hasiera batean argitaratzaileek berpizte horren inguruko informazioa emateko inolako gogorik ez bazuten ere, urte gutxiren buruan, informazio eztanda bat eman zen, *Women´s Lib* modako gaia izatera eraman zuena. Feminismo berriak gora egin zuen aparrak bezala. Hala, *San Francisco Chronicle* 1973. urtean hamar orrialde argitaratu zituen, hirian zeuden taldeen izenen, helbideen, bilera orduen eta jardueren berri emateko.

Feminismo eredu hori, oro har, gizarte mugimendua zaharren antolatze moduetatik aldentu zen. Kontrakulturaren ikuspegi batetik, alderdi ludikoa txertatu zuten borroka forma berrietan, eta musikaz, kolorez eta festaz baliatu ziren estrategia berriak hedatzeko. Haren taktikak ziren, besteak beste, desfileak, bilkurak, manifestazio masiboak eta oihartzun handia izan zuten askotariko kanpaina ikusgarriak. Horrelako ekintza askok zentzu

politiko bat utzi zuten agerian, eta lege aldaketa garrantzitsuak sartzen lagundu zuten.

Gehien errepikatutako ekintzetako bat edertasun lehiaketak boikotatzea izan zen, emakumearen esplotazio sexualaren aurka protestatzeko. Desobedientzia zibilaren forma hori protestatzeko modalitate berri bihurtu zen, eta horren bidez, emakumeen aurkako opresioa mantentzen laguntzen zuten bitarteko guztiak azaleratu nahi zituzten, ordura arte naturalak zirela eta emakumeei kalte gutxi egiten zietela pentsatzen baitzen (Nash, 2004). Atantic Cityn 1968ko irailean egindako Miss America edertasun lehiaketaren aurka protestatzeko feministek bularretakoak kentzeko eta erretzeko asmoa zutela zabaldu zenetik, *bra-burning* izan zen egunkari eta aldizkarien terminorik gogokoena. Alabaina, bularretakoak erretzea *Women`s Lib*eko feministen ohiko erritua zela behin eta berriro errepikatzeak ez zion askorik lagundu mugimenduari; izan ere, mugimenduko kideen inguruan emakume nahiko «errazen» eta ohikoa baino sexu portaera askeagokoen irudia zabaldu zen.

Hori dela eta, neurrigabeko arreta eskaini zitzaion muturreko feminismoaren taktikei eta erretorikei. Gertaera serioek, hala nola National Organization for Women (NOW) erakundearen sorrerak, apenas izan zuten estaldura eta, izan zutenean ere, aipamen laburretara mugatu ziren. Erakunde horri dagokionez, *National Observer*ek artikulu bat argitaratu zuen azalean 1966an «Women Are The Next Great Issue For Civil Rights» izenburupean, non honako hau irakur zitekeen: «Amerikako senar guztientzako abisua: egun gutxi geratzen zaizkio gizonen gailentasunari. Legezko eta eguneroko eredu bikoitz batek biktimizatuak eta degradatuak bizi diren emakumeek defendatzaile berri bat aurkitu dute. NOW da, Emakumeen Erakunde Nazionala, mugimendu berri bat, XIX. mendeko *suffragette*ek defendatutako emakumeen emantzipazio ametsa betetzeko gai izango den presio talde masibo bihurtzeko bidean dena». Artikulua honela amaitzen zen: «Ikusteko dago ea emakume asko batuko diren NOWk armak hartzeko egindako deialdira».

Era berean, mugimenduaren ekintza publiko garrantzitsuenetako bat, Estatu Batuetako Konstituzioaren Hemeretzigarren Zuzenketaren⁴ berrogeita hamargarren urteurrena ospatzeko emakumeen greba eguna, 1970eko abuztuaren 26an egindakoa, «porrot» gisa kalifikatu zen. Aurreko egunetan, hedabideek deialdiari eta haren antolakuntzari buruz ematen ari ziren informazioaren gaineko kezka agertu zuten feministek, hura boikotatu zutelako susmoa baitzuten (Bradley, 2003: 115).

Feministak gizartearen bazterrean dauden eszentriko gisa aurkezteko ohiko joerak kide guztien irudi koherenteak eskaintzea eragotzi zuen. Deborah L. Rhode (1995: 693) egilearen arabera, 70eko eta 80ko hamarkadetan Times aldizkariak emandako estaldura garaiko hedabideetan ohikoa zen karakterizazioaren erakusgarria da: «zaratsuak», «umore


4. Zuzenketa hori Estatu Batuetako emakumeei boto eskubidea emateko egin zen. 1920ko abuztuaren 26an berretsi zuten.

txartuak», «erradikalak», «lesbianak» eta «iletsuak». Aldizkari berak hauxe argitaratu zuen 1970ean: «Women`s Libeko liderren kausa arrotzetarako joerak emakume asko hotz uzten ditu». Hamarkada baten ondoren, 90eko urteen hasieran, emakumeen erronkei buruzko erreportaje batean, argitalpen horrek berak hau jaso zuen: «Zango iletsuek mugimendu feministari jazartzen diote, beren izaera zaratzatsuen eta lesbianismoaren irudiek bezala» (Douglas, 1994: 275).

Edmonton Journal eta *Vancouver Sun* egunkarietako binetak aztertzen baditugu, aro sufragistan feminismoa ukatzeko erabilitako zenbait topiko nola errepikatzen diren ikus dezakegu, horretarako hainbat komunikazio baliabide erabilia, esate baterako, satira: a) emakumeen eskubideak aldarrikatzeak rolen iraulketa dakar (etxeko espazio pribatua gizonarentzat eta espazio publikoa emakumearentzat) (12. irudia); b) genero desberdintasuna sexuen arteko desberdintasun naturalei buruzko argudioetan oinarritzen da (13. irudia); c) emakumeek etxean egindako lana gutxiesten da (garbiketa, seme-alaben zaintza, etab.), eta emakumeen berezko edo jaiotzetiko rol gisa onartzen da (14. eta 15. irudia); d) feministak mari-gizonak eta lesbianak izan ohi dira (16. irudia).




12. Irudia. Emaztearen lanbidea?...
Antolatzailea, Emakumearen Askapen Mugimenduarena!
Edmonton Journal (1970)



13. Irudia. Emakumeen Askapen Mugimendua urrunegi joan da oraingoan!
Edmonton Journal (1970)



14. Irudia. Greban zaude etxekoandre amerikarrekiko elkartasunez edo zure betiko nagikeria eta anabasa baino ez da?
Edmonton Journal (1970)



15. Irudia. Zertarako hainbeste iskanbila ez bazara Senatura aurkeztuko eta ez baduzu enpresa bat zuzenduko?
Vancouver Sun (1970)

Feministen irudiak eta janzkerak ere hedabideen atentzioa bereganatu zuten, eta hori haien kontrakoa izan zen, emakume horiek arrisku bikoitzari egin behar baitzioten aurre, batetik, itxura nahikoa feminista ez izatea, eta, bestetik, itxura feministegia izatea: oso erakargarri ez zirenek irainak jasan behar izan zituzten, gizonezkoak erakartzeko zailtasunak izateagatik feminista egin zirela esaten baitzioten; xarmangarriei, berriz, hutsalak, hipokritak eta balio sexisten konplizeak zirela esaten zitzairen. Hedabideek feministak itxurazko kontraesan horietan harrapatzen atsegin hartu zuten, ekintzen arabera baino gehiago haien itxura fisikoaren arabera epaituz. Eskubide berdintasunaren aldeko lehen martxa handia ezagutzera eman zenean, *New York Times*ek izenburu hau hautatu zuen: «Lider feministak ilea jarri du manifestazioa baino lehen» (Rhode, 1995; 696). Estereotipo horiek denborarekin behera egin dute, baina haien arrastoak iraute du.



16. Irudia. Ongi dago... baina apur bat femeninoa da
Vancouver Sun (1970)

Feministen kausa bere liderren nortasunarekin identifikatzea hedabideen gustukoa izan zen, eta estrategia horrek aipatutako profil feministak indartu baino ez zituen egin. Leonie Huddy-k (1997: 193) *The New York Times*ek eta beste astekari batzuek 1960-1980 urteen bitartean emandako estaldurari buruz egindako azterlanak frogatu zuenez, «feminista» terminoa funtsean bozeramaile batzuei lotuta erabiltzen zen, hala nola Gloria Steinem-i, Betty

Friedan-i eta Kate Millet-i. NOWren topaketa jendetsu baten ondoren, 70eko hamarkadaren hasieran, Time aldizkariak honako hau adierazi zuen:

«Ironikoki, Kate Millet-ek berak bakarrik mugimenduaren inguruko eszeptizismoa zabaltzen lagundu du, orain dela gutxiko bilkura batean bisexuala zela onartzean. Baieztapen horrek (...) zalantzan jartzen ditu bere teoriak, eta liberazionista guztiak lesbianak direla diotenen eta eszeptikoen ikuspegia indartzen du» (Davis, 1991: 268).

Era berean, polarizazio bat bultzatu zen, gai feminista korapilatsuenen gaineko muturreko jarreretatik abiatuta. Horrela, prentsak zalantza bako balantze bat lortzen zuen, hortik kanpo ez baitzegoen ezer. Rhodék (1995: 701) ilustratu duenez, protesta publiko horien berri ematean, berriemaileek feministen iruzkin erradikalenak –haien salaketaren kausaz azalpen handirik eman gabe–, eta kaleko jendearen –emakumeak gehienetan– iritziak jasotzen zituzten; iritzi horiek, ordea, erretorika horretatik aldentzen ziren, ez zutelako ezagutzen protesta justifikatzen zuen arazoa. Iritzi kontrajarrien aurkezpen hori eginda, eztabaidak eta haien benetako kausak arinki tratatzen ziren, konponbiderako aukera oro bazterrean utzita. Oro har, feministak jarrera guztiz muturrekoetan eta polemikoetan agertzen ziren, eta haien aurkariak, berriz, jarrera zentzuzkoagoak eta toleranteagoak erakusten zituzten. Polarizazio horren eraginez, bestalde, emakumeen arteko eztabaidetan, emakumeak elkarri mokoka ari zirela ematen zuen, eta gizonak, bien bitartean, urrun geratzen ziren, borroka feministaren behatzaile objektibo gisa, baina inoiz ez aurkari gisa. Estaldura mota horrek, alde batetik, lausotu egin zuen feminismoaren inoizko aldarrikapen nagusietako bat; hots, emakumeen arteko elkartasuna, eta, bestetik, gizonezkoak genero berdintasunarekiko duen erresistentzia ezkutatu zuen (Rhode, 1995: 702).

Prentsak emakumeen kontzientzia berriaren aurrean erakutsitako anbigualtasunak agerian geratu zen ere albisteekin batera jarritako argazkietan. Gutxiesgarriak eta bortitzak izaten ziren, eta horrek estereotipoa indartzen lagundu zuen. Prentsan bineten bidez feministei eta *Women`s Lib* buruz emandako irudiak ere definizio estereotipatu bat indartu zuen, zeinak sufragisten garaiko ilustrazioetan jasotako topiko asko gordetzen baitzituen.

4. ONDORIOAK ETA AZKEN GOGOETAK

Eskema ideologiko baten eta egoera politiko-sozial baten araberrako eduki sortaileen (hedabideak, elkarteak, etab.) interesen menpe dagoenean, interpretazio prozesu komunikatiboak garrantzi berezia hartzen du gizarte, politika eta kultura eraldatu nahi duten gutxiengoei edo mugimenduei –hala nola feminismoari– ematen zaion estalduran, presentzian eta trataeran (Baylor, 1996: 241).

Une jakin batzuetan prentsak zenbait gai feminista lehentasun politiko izan daitezkeen aliatu gisa jokatu badu ere, mugimenduari eta haren kideei buruzko informazioak despolitizazioa ere sustatu izan du, albisteak emakumeen

orrialdeetara edo gizarteko sekzioetara mugatuta. Eskaera batzuk pixkanaka agenda publiko orokorrean sartzeak ez zuen ekarri haien aldarrikapenen azalpen markoaren analisi bat. Hedabideek zerbaitengatik jarri dute arreta gehiago aldarrikapen erreformistetan, albo batera utzita iraultzaileentzat hartu direnak (mentalitate aldaketa, genero kontzientzia, etab.).

Diskurtsoaren estaldura eta gai feministak bigarren maila batean geratu dira, formula edo errutina produktiboen eraginez hedabideek ekimen deigarrietan jartzen dutelako arreta eta iturri ofizialetera jotzen dutelako. Hortaz, feminismoaren interes mediatikoak ekintza ikusgarrienei eta sentsazionalistenei erreparatzen die: manifestazioak eta kaleko protestak, sektoreen arteko liskar ideologikoak, etab.

Horri lotuta, gertaerei eta pertsona ezagunei buruzko informazioak eta kasuak hautatzeko joera horrek, feminismoaren esentziaren berri eman beharrean, egoera jakinei edo liderrei buruzko anekdotez betetako orrialdeak eman dizkigu, eta hori mugimenduarentzat gehiago izan da oztopo bat, helburuak lortzeko laguntza bat baino. Egunkari jakin batzuek jarrera bereziki satirikoa erakutsi dute militantzia mota horrekiko, umore grafikoaren bidez oso modu argian ikus daitekeenez. Horrek irudi faltsu baten sorrera eragin du, eta horren arabera, emakumea da tratatu txarren emaila eta dominatzailea, biktima erreala izatetik irudizko borrarera izatera pasatuta. Feminismoa/lesbianismoa harremana estereotipo moderno finkatzeko gehien erabilitako kliseetako bat izan da. Horrelako jarrerak mugimenduari prestigioa kentzea edo hura ezerezean uztea eragin dute.

Modu batera nahiz bestera, historia hori lotuta dago hedabideek gaur egun gai feministei ematen dieten trataerarekin. Gai feministak egungo kazetaritzaren unibertsoan gero eta finkatuagoak dauden arren, egia da azken horrek leku bat topatu duela sareko espazio alternatiboetan (Twitter, etab.).

90eko hamarkadan Interneten sorrera ikur izan zuen aurrerapen teknologikoak mugimendua indarberritu zuen, eta adierazpide berri bat eman zion, masa komunikabide tradizionalen inperiotik aldentuta. Teoria eta praxis feministek helmuga berriak finkatu zituzten, (tekno)kultura berriarekin etorrita. Webaren bidezko ikusgarritasuna borroka feminista egituratzeko eta garatzeko tresna bilakatu zen, ordura arte ezezagunak ziren adierazpen ahalmenak jarri baitziren mugimenduaren esku, hala nola komunikatzeko modu berri bat, non emakumeak baitziren informazioaren egileak, helarazteak eta hartzaileak.

Sarean sortutako lehen espazioak (komunitate birtualak –hala nola Emakumeak Sarean arrakastatsua Espainian–, blogak, etab.) eta elkarriketarako lehen bitartekoak (foroak, txatak, posta elektronikoak eta banaketa zerrendak, albiste taldeak, etab.) hedapen feministaren atarikitzat har ditzakegu; hedapen bat, Twitter bezalako espazioetan emango dena eta “hashtag feminismoa” izenekoaren bidez adierazpen maila gorenera iritsiko dena. Horri esker, feministek protagonismo handiagoa lortuko dute gizartean; *in crescendo* ikusgarritasun bat, lan honetan deskribatutako

kasuen arabera erreferentziazko hedabideek –esaterako, prentsa idatziak– islatzen jakin ez dutena.

Gaur egun, erreferentziazko hedabide edo marketan berdintasun helburu feminista asko partekatzen dira, baina ez da mugimendu feminista edota honen ekintza kolektiborako deialdia bultzatzen, goian aipatutako “hashtag feminismoan” egiten den bezala. Webean, feminismoa bizi estilo bat (eraldaketa pertsonala) kontsideratzen, mugimenduarekiko konpromisoa (gizarte eraldaketa) bultzatzera pasatu gara. Hala eta guztiz ere, oro har, webaren barruan eta kanpoan, nolabaiteko joera hautematen da komunikazio edo kazetaritza estilo «progreak» edo prototipo feminista komertzial eta estereotipatuak bultzatzeko, askotan arlo jakin batzuei oso lotuta daudenak (moda, zinema, musika, etab.).

Zentzu horretan, baieztatu genezake gaur egun aldaketa bat ematen ari dela feminismoaren estereotipatze metasinboliko tradizionalan, eta horrek gogoeta bat egiteko eskatzen digu: «Hedabideek eta haien audientziek arazo jakin batzuekin egiten dituzten loturek eta talde feministen horien ohiko salaketek (...) gai horien gaineko kontsiderazio publikoa kutsatzen dute, lehendik defendatzaileen inguruan osatutako irudien bidez» (Dader, 2000: 32).

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOA

- ANN LIND, R.; SALO, C. (2002): «The Framing of Feminists and Feminism in News and Public Affairs Programs in U.S. Electronic Media», *Journal of Communication*, 52, 1, 211-228.
- BARD, C. (2000): *Un siglo de antifeminismo*, Biblioteca Nueva, Madril.
- BAYLOR, T. (1996). «Media Framing of Movement Protest», *Social Science Journal*, 33, 241-256.
- BRADLEY, P. (2003): *Mass Media and the Shaping of American Feminism, 1963-1975*. University Press of Mississippi, Mississippi.
- CANCIAN, F. M.; ROSS, B. L. (1981): «Mass Media and the Women's Movement: 1900-1977», *The Journal of Applied Behavioral Science*, 17, 1, 9-26.
- CARDEN, M.L. (1974): *The new feminist movement*. New York: Russell Sage Foundation.
- DADER, J. L. (2000): «La mujer como categoría emergente en la producción de noticias», *Cuadernos de Información y Comunicación*, 23-37.
- DAVIS, F. (1991): *Moving the Mountain: The Women's Movement in America since 1960*, Simon & Schuster, Nueva York.
- DOUGLAS, S. J. (1992): *Where the Girls Are: Growing Up Female with the Mass Media*, Random House, Nueva York.
- ERDMAN, A. (1995): «Feminism and the Media: Introduction», *Signs, Journal of Women in Culture and Society*, 20, 3, 642-645.
- ESCARIO, P; ALBERDI, I.; LÓPEZ-ACCOTTO, A. I. (1996). *Lo personal es político. El Movimiento Feminista en la transición*, Instituto de la Mujer, Madril.

- FREEMAN, J. (1975): *The politics of women's liberation*, David McKay Company, New York.
- HUDDY, L. (1997): «Feminists and feminism in news», in P. Norris (ed.). *Women, Media and Politics*. Cambridge: University of Oxford Press, 183-204.
- IMBERT, G. (1990): *Los discursos del cambio. Imágenes e imaginarios sociales en la España de la Transición (1976-1982)*, Akal, Madril.
- JOHNSON, L. A. (1995): «Forum on Feminism and the Media: Afterword», *Signs, Journal of Women in Culture and Society*, 20, 3, 743-775.
- KRIPPENDORFF, K. (2004): *Content Analysis. An introduction to its methodology*, Sage, Thousand Oaks, 2004, 45-46.
- LARRONDO, A. (2005): «La Red al servicio de las mujeres. Aproximación a la relación mujer y medios de comunicación en Internet», *Estudios sobre el Mensaje Periodístico*, 11, 375-392.
- LARRONDO, A. (2017): *La imagen pública del feminismo en la Transición. Una mirada desde la prensa*, UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua, Leioa.
- LARUMBE, M. Á. (2002): *Una inmensa minoría. Influencia y feminismo en la Transición*, Prensas Universitarias de Zaragoza, Zaragoza.
- LARUMBE, M. Á. (2004): *Las que dijeron no. Palabra y acción del feminismo en la Transición*, Prensas Universitarias de Zaragoza, Zaragoza.
- MARX, M.; Hess, B. (1995): *Controversy & Coalition. The New Feminist Movements across Three Decades of Change*, Twayne Publishers, Nueva York.
- MCCOMBS, M. eta BELL, T. (1997): «The Agenda-setting role of mass communication», in S. Michael eta S. Donal (ed.). *An integrated approach to communication theory and research*, Lawrence Erlbaum, New Jersey, 93-113.
- MORRIS, M. B. (1973a): «Newspapers and the New Feminists: Black Out as Social Control?», *Journalism Quarterly*, 50, 37-42.
- MORRIS, M. B. (1973b): «The public definition of a social movement: Women's Liberation», *Sociology and Social Research*, 57, 526-543.
- NASH, M. (2004): *Mujeres en el mundo. Historia, retos y movimientos*, Alianza, Madril.
- RHODE, D. L. (1995): «Media Images, Feminist Issues», *Signs, Journal of Women in Culture and Society*, 20, 3, 685-710. Chicagoko Unibertsitatea.
- TURNER, R. H. eta KILLIAN, L. M. (1957): *Collective Behavior*, Prentice-Hall, New Jersey.

Webgrafia

- <http://www.feminist.org/research/chronicles/fc1966.html>
- <http://www.nationalarchives.gov.uk/education/britain1906to1918/pdf/gallery-3-suffrage-case-studies.pdf>
- <http://historyoffeminism.com/anti-suffragette-postcards-posters-cartoons/>
- <http://www.memoriespictures.co.uk/socialhistory>
- http://www.johndclare.net/woman_cartoonist.htm

<http://www.punchcartoons.com>
<http://www.cartoonstock.com>
<http://www.lib.washington.edu>
<http://www.birmingham.gov.uk>
<http://www.nps.gov/archive/wori/report1.htm>
<http://www.bl.uk>
<http://www.learnhistory.org.uk/cpp/suffagettes.htm>
<http://www.womeninworldhistory.com>
<http://www.march.es/ceacs/biblioteca/proyectos/Linz/Index.asp>
<http://www.elpais.com/archivo/hemeroteca.html>
<http://www.lavanguardia.es/hemeroteca>
<http://timesmachine.nytimes.com/browser>
<http://pqasb.pqarchiver.com/washingtonpost/search.html>
<http://archive.timesonline.co.uk/tol/archive>
<http://pqasb.pqarchiver.com/chicagotribune/advancedsearch.html>
<http://search.boston.com/local/Historic.do>

* Lana Gureiker (IT1112-16) Euskal Unibertsitate Sistemaren Talde Kontsolidatuaren eta Ministerioko 'Audiencias activas, viralización y transformación de los mensajes periodísticos' (CS2015-64955-C4-4-R) (MINECOR 15/ P65) proiektuaren parte da. Artikuluak 'Emakumeak eta Hedabideak' I. Jardunaldietan eskainitako hitzaldia garatzen du. (Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea, UPV/EHU).